

OLEANNA

David Mamet

Itzulpena:

Jose Luis Agote
Juan Luis Mendaraz
Olatz Beobide

BAT

JOHN telefonoz ari da. CAROL haren aurrean dago eserita, mahaian.

JOHN: *(telefonoz:)* Eta terrenoarekin zer gertatzen dun? *(Isilunea)*. Terrenoa. Eta zer gertatzen dun terrenoarekin? *(Isilunea)* Ez. Ez dinat tutik ulertzen. Beno, bai, ni, ni... ez, seguru negon garrantziz... *(Isilunea)* Garrantzizkoa delako nire... Jerryri hotsegina al dion? *(Isilunea)* Ez, ez, ez, ez, ez. Zer esan dinat...? Ajentziako emakumearekin hitzegin al dun... Eta non zegon...? Beno, beno, bale. Non dauzkan bere oharrak? Non dauzkan berarekin hartutako apunteak? *(Isilunea)* Bertan ez al hengoen ba? Ez, ez, barkatu, ez ninan hori esan nahi, baina han ikusi hintudala uste ninan... Zer...? Lapitzaz ikusi hintudala uste ninan. ZERGATIK ORAIN? Hori dun... horixe ba, horrexegatik esan dinat "deitu Jerryri". Beno, momentu honetan ez zeukanat hitzegi... Aizan, Grace, oso ondo konturatzen naun... Begira, aditu. Jerryri deitu al dion? Eta Jerryri deituko al dion...? Ba, nik orain ezin dinatelako. Hor izango naun, seguru izan hor izango naizela hamabost, hogeita minutu barru. Saiatuko naun. Ez, ez, ez dinagu galduko, ez dinagula etxea galduko. Begira, begira, ez naun arinean hartzen ari. "Bide-zorra". "Bide-zorra" esan al zinan? *(Isilunea)* Zer esan zinan; "term of art"? Ba, nolabait behartuta gaudela... behartu egiten gaituel... Begira, *(erlojuari begiratzen dio)* beste erosleak etxera joan baino lehen, bale? "Term of art" esan al zinan?... Horixe delako esan nahi duena *(Isilunea)* Mutikoarentzako jardina. Beno, hori dun guztia... Begira, han elkartuko gaitun... *(orduari begiratzen dio)* Hor al zegon terreno korredorea? Ongi, esaion sotoa berriz erakusteko. Horri ondo begiratu ze... ze... Banian, hamar edo hamabost min... bai. Ez, ez, etxe berria elkartuko gaitun. Korredoreak beharrezkoa dela uste baldin badin... Esan Jerryri joateko, konforme? Ez dinagula seinalea galduko. Bale? Seguru negon hala izango dela... *(Isilunea)* Hala espero dinat *(Isilunea)* Nik ere maite haut. *(Isilunea)* Nik ere oso maite haut... Ahal bezain laster... bai. *(Telefonoa eskegitzen du)* *(Mahaira makurtu eta ohar bat idazten du)* *(Gora begiratzen du)* *(CAROLi:)* Barkatu...

CAROL: *(Isilunea)* Zer da "term of art"?

JOHN: *(Isilunea)* Barkatu?

CAROL: *(Isilunea)* Zer den "term of art".

JOHN: Horretaz hitz egin nahi al duzu?

CAROL: ... horretaz hitz egin...?

JOHN: E! Mistizismoa alde batera utziko dugu, konforme? Carol? *(Isilunea)* Ez zaizu iruditzen? Begira, derrigorrez kanporatuko beharreko "ezer" daukagunean... *(Isilunea)* Ez zaizu iruditzen...? *(Isilunea)*

CAROL: ... ez zait iruditzen...?

JOHN: Mmm?

CAROL: ... ez zait...?

JOHN: ... zer?

CAROL: E... zera... okerren bat esan al dut?

JOHN: *(Isilunea)* Ez. Barkatu. Ez. Arrazoi duzu. Barkatu. Presaka nabil. Ikusten duzu. Barkatu. Arrazoi duzu. *(Isilunea)* Zer den "term of art"? Hitz bat da, *termino bat*, erabileraren poderioz, hitz horren

ezaguerarik ez duen bati adierazten diona baino zerbait zehatzagoxea adierazten duena. Hori da, nik uste, hori litzake “term of artek” esan nahiko lukeena. (Isilunea)

3

CAROL: Ez dakizu zer esan nahi duen...?

JOHN: Ez dakit ba ote dakidan zer esan nahi duen. Zeratxo hoietako bat... zuk ere egingo zenuen, hiztegi-
jo edota bateren bati esplikatzeke esan, eta “aha” esaten duzu, baina berehalaxe *ahazten* zaizu
hitzaren esan nahia...

CAROL: Zuk ez duzu egiten.

JOHN: ... nik...?

CAROL: Zuk ez duzu...

JOHN: ... nik ez dudala, zer...?

CAROL: ... ahaz...

JOHN: ... nik ez ditudala ...

CAROL: ... ez...

JOHN: ... gauzak ahazten? Jende guztiak egiten du hori.

CAROL: Ez. Ez dute.

JOHN: Ez dutela...

CAROL: Ez.

JOHN: (*Isilunea*) Ez. Jende guztiak egiten du hori.

CAROL: Zergatik egin beharko lukete hori...?

JOHN: Zergatik, ez dakit. Ez zaielako interesatzen.

CAROL: Ez.

JOHN: Ba, nik baietz uste. (*Isilunea*) *Liluratuta* utzi nauzu. Barkatu. Geurera itzuliko gara.

CAROL: Ez didazu barkamena eskatu beharrik.

JOHN: Ez. Zuk omendu nauzu ni bulego honetaraino etortzearekin —ederki— Carol. Eta? Hemen gara ez
atzera eta ez aurrera. Nik uste...

CAROL: ... zerbait ...

JOHN: ... zaude piska batean. Zure zerari dagokionez... zure azterk...

CAROL: Oh, oh. Etxe berria erostekotan zabilta!

JOHN: Ez, jarraitu dezagun gurearekin.

CAROL: “Jarrai dezagun”? (*Isilunea*)

JOHN: Bai. Badakit nola... *sinestuidazu*. Badakit zenbateraino... *umiliagarri* gerta daitekeen... nik ez zaitut
sus... Nik ez dut zu laguntzea besterik nahi. Baina: (*Paper batzuk hartzen ditu mahai-gainetik*). Eta
ez nuke ezta “baina”rik esan beharko, baina esango dizudana da zure... errepasatzean...

CAROL: Nik soilik... nik esan nahi...

JOHN: ... ez horrekin ez duzu ezer lortuko.

CAROL: ... zer? Zer lortu...?

JOHN: Ez. Badakit, badakit baina zure... zera... (*Paperak seinalatzen ditu*) zure lana...

CAROL: Klasean eseritzen naiz... (*koadernoak erakusten du*) apunteak hartzen ditut...

JOHN: (*“apunteak”-ekin batera*): Bai, ulertzen dut. Baina nik *aditzera* eman nahi dizudana da, oinarrizko zeozer...

CAROL: ... ni saiatzen...

JOHN: ... zaude piska batean: oinarrizko komunikaziorik ez dag...

CAROL: Esan didatena egiten ari naiz. Zure liburua erosi nuen, irakurri egin nuen zure...

JOHN: Ez, seguru zuk...

CAROL: Ez, ez, ez. Esan didatena egiten ari naiz. *Zaila* da niretzat. *Zaila* da...

JOHN: ... baina...

CAROL: Ez dut... *hizkera* hori...

JOHN: ... mesedez...

CAROL: *Hizkera*, esaten dituzun “gauzak”...

JOHN: Ez. Barkatu. Ez. Ez dut uste hori egia denik.

CAROL: Egia *da*. .

JOHN: Nik uste...

CAROL: Egia *da*.

JOHN: ... ni...

CAROL: Zergatik esan beharko nuke nik...?

JOHN: Esango dizut zergatik: izugarri neska azkarra zara.

CAROL: ... ni...

JOHN: Izugarri azkarra... Ez daukazu arazorik... Zein ari da hemen harpa jotzen?

CAROL: ... ni...

JOHN: Ez. Ez. Esango dizut zergatik. Nik esango dizut... *Haserre* zaudela iruditzen zait. Ni ere egon...

CAROL: Zergatik egon beharko nuke nik has...?

JOHN: ... zaude piska batean. Ni ere egon...

CAROL: Egia *da*. *Arazoak* dauzkat...

JOHN: Jende guz...

CAROL: ... maila *sozial* desberdin batekoa naiz...

JOHN: Jende guz...

CAROL: ... egoera ekonomiko desber...

JOHN: ... Begira...

CAROL: Ez. Ni... Fakultate honetara *etorri nintzenean*...

JOHN: Bai. Horixe bera... (*Isilunea*)

CAROL: ... ez al du horrek ezer esan nahi...?

JOHN: ... baina begira. Begira...

CAROL: ... ni asko kostatzen...

JOHN: (*Azterketa hartzen du*) Hemen: Faborez: Eseri zaitez. (*Isilunea*) Eseri. (*Azterketa irakurtzen du*) "Nire iritziz, liburu honetan agertzen diren ideiek autorearen "sentimenduak" adierazten dituzte, berak nahi zuen moduan, emaitzetan oinarriturik". Zer esanahi eduki dezake honek? Ikusten? Zer...

CAROL: Nik, ahal nuen ondoena...

JOHN: Nik esan nahi dizudana da, agian kurtso hontan...

CAROL: Ez, ez, ez, ezin duzu, ezin duzu... Nik aprobatu behar...

JOHN: ... nola nahi...

CAROL: ... Nik aprobatu beharra daukat...

JOHN: Carol, nik...

CAROL: Kurtso hau pasa beharra daukat, nik...

JOHN: Ondo da.

CAROL: ... ez al duzu ulertzen...

JOHN: Bietako bat...

CAROL: ... nik...

JOHN: ... nik... klasean egindako aurrerapenak juzkatzeko *irizpideak* aldatu, ala...

CAROL: Ez, ez, ez, nik aprobatu beharra daukat.

JOHN: Hara, begira: Ni ere gizakia naiz.

CAROL: Esan zenidana egin dut; dena bete dut, esan zenidan guztia, irakurri dut zure *liburua*; zure liburua erosi eta irakurtzeko esan zenidan. *Esaten* duzun guztia bete... (*Koadernoa seinalatzen du*) (*Telefonoak jotzen du*) Hala da... Guzti...

JOHN: ... begira...

CAROL: ... esan zaidan guztia...

JOHN: Entzun. Aditu. Ni ez naiz zure *aita*. (*Isilunea*)

CAROL: Zer?

- JOHN: Ni ez naiz zu...
- CAROL: Nire aita zarela esan al dut nik?
- JOHN: ... ez...
- CAROL: Zergatik esan duzu hori...?
- JOHN: Ni...
- CAROL: ... zergatik esan...?
- JOHN: ... klasean ni... (*Telefonia hartzen du*) (*Telefonia*): Bai? Orain ezin dut hitz egin. Jerryk? Aupa, hi!... Orain ezin diat hitz egin. Bazekiat... Bazekiat... Jerry. Orain ezin diat *hitz egin*. Bai, neuk deitidak hemendik... Milesker. (*Eskegi egiten du*) (*CAROLi*): Beno, aber, zer nahi duzu nik egitea? Bi gizaki gara, ezta? Eta biok onartu ditugu...
- CAROL: Ez, ez...
- JOHN: ... nolabaiteko arau instituzional...
- CAROL: Ez. Zuk lagundu egin behar didazu.
- JOHN: ... arbitrario batzu... esaidazu zer nahi duzun nik egitea. Esaidazu nik zer egin...
- CAROL: Nola itzuliko naiz etxera...
- JOHN: ... eta zer egin dezaket nik...?
- CAROL: *Irakatsidazu. Irakatsidazu.*
- JOHN: Irakasten saiatzen ari naiz.
- CAROL: Zure liburua irakurri dut. Irakurri dut. Baina ez dut uler...
- JOHN: ... ez duzu ulertzen.
- CAROL: Ez.
- JOHN: Beno, beharbada ez da ondo *idatzia* egongo...
- CAROL: (*"egongo" rekin batera*): Ez. Ez. Ez. *Uler*tu egin nahi dut.
- JOHN: Zer da ulertzen ez duzuna? (*Isilunea*)
- CAROL: *Ezer ere ez*. Esan nahi duzuna. Zerari buruz hitzegiten duzunean...
- JOHN: ... bai...? (*Carolek apunteak begiratzeko ditu*)
- CAROL: "Gazte mordokatzeko birtuala..."
- JOHN: "Gazte mordokatzeko birtuala". Adoleszentzia artifizialki luzatzen baldin badugu...
- CAROL: ... eta "Irakaskuntza Modernoaren Madarikazioari" buruz...
- JOHN: ... eta...
- CAROL: Ez dut...
- JOHN: Begira. *Kurtso* bat besterik ez da, *liburu bat* baino ez, datorren urt...

- CAROL: Ez. Ez. Hemen *personak* daude. *Hona* etorritakoak. *Ezagutzen* ez zuten zerbait ikastera. *Hona* etorritakoak. *Lagunduak* izateko. *Lagunduak* izateko etorriak. Norbaitek *lagundu* beharko die. *Zeozer egitera. Zeozer ikastera.* Aurrera, nola esaten duzue? “Munduan aurrera ateratzeko”. Baina nola lortuko dut nik hori, ez badut, porrot egiten badut? Baina ez dut *ulertzen*. Ez dut *ulertzen*. Ez dut ulertzen ezertxoren esanahia... eta bueltaka dabilkit... Egun osoan bueltaka: pentsamendu bakar bat daukat buruan. *Tuntuna* naiz.
- JOHN: Inork ez du esan tuntuna zarenik.
- CAROL: Ez? Zer naiz ni...?
- JOHN: Nik esang...
- CAROL: ... zer naiz ni orduan?
- JOHN: Haserre zauden pertsona bat zarela uste dut. Jende asko dago haserre. Begira, *Telefono* dei bat egin beharra daukat. Eta *zita bat, premiazkoa*; zure kezkekin bat nator, eta nahiago nuke astia izatea, baina bilera hau ez neukan ajendan eta nik...
- CAROL: Hutsaren hurrengoa naizela uste duzu...
- JOHN: ... zita bat daukat, *terreno korredorearekin* eta nire emaztearekin eta...
- CAROL: Tuntuna naizela uste duzu.
- JOHN: Ez. Inola ere ez.
- CAROL: Zerorrek esan duzu.
- JOHN: Ez. Nik ez dut hori esan.
- CAROL: Bai.
- JOHN: Noiz?
- CAROL: ... zuk...
- JOHN: Ez Jauna. Nik ez dut hori esan eta sekula ez nioke horrelakorik esango ikasle bati, eta...
- CAROL: Zuk esan duzu, “Zer esanahi eduki dezake honek?” (*Isilunea*) “Zer esanahi eduki dezake honek?”... (*Isilunea*)
- JOHN: ... eta zer esanahi dauka zuretzat?
- CAROL: Tuntuna naizela esan nahi duzu eta ez dudala sekula ikasiko. Hori esan nahi duzu. Eta arrazoi daukazu.
- JOHN: Ez...
- CAROL: Baina, orduan... Orduan, zertan ari naiz ni hemen...?
- JOHN: ... zuk hori pentsatu baldin baduzu...
- CAROL: Inork behar ez banau, eta...
- JOHN: ... horrela interpretatu baduzu...
- CAROL: Inork ez dit *ezer* esaten. Eta han *esertzen naiz*... *txoko* batean. *Atzean*. Eta mundu guztia inguruan berriketan ari da. Zuk aipatzen dituzun “Kontzeptuak eta legeak” eztabaidatzen eta, eta, eta, eta, ZER DEMONTRETAZ ARI ZARETE? Zure liburua irakurri dut. Eta “oso ondo, zoaz klase horretara,

“guay” da esaten zidaten. Gazteekiko ardura aipatzen bait zenuen. EZ DAKIT HORREK ZER ESAN NAHI DUEN ETA PORROT EGITEN ARI NAIZ...

8

JOHN: Beharbada...

CAROL: Ez, arrazoi duzu. “Kaka zaharra!”. Porrot egin dut. Bota nazazue hemendik kanpora. Zaborra besterik ez da, egiten “sentimenduak” adierazten dituzte. Hori da. Horixe da. Badakit tuntuna naizela. Badakit zer naizen. (*Isilunea*) Badakit zer naizen, Irakasle jauna. Ez daukazu ezer esan beharrik. (*Isilunea*) Patetikoa da, ezta?

JOHN: Bai. (*Isilunea*) Eseri. Eseri. Mesedez. (*Isilunea*) Mesedez, eseri.

CAROL: Zergatik?

JOHN: Zurekin hitz egin nahi dut.

CAROL: Zergatik?

JOHN: Zu eseri. (*Isilunea*) Mesedez. Eseri. Eseriko al zara, mesedez...? (*Isilunea. Carol eseri egiten da.*) Milesker.

CAROL: Zer?

JOHN: Gauza bat esan nahi dizut.

CAROL: (*Isilunea*) Zer?

JOHN: Baietz, badakidala zertaz ari zaren.

CAROL: Ez. Ez dakizu.

JOHN: Bai, ba dakit. (*Isilunea*)

CAROL: Nola jakin dezakezu?

JOHN: Neroni buruzko istorio bat kontatuko dizut. (*Isilunea*) Axola zaizu? Lerdoa nintzela pentsatzeko hazi ninduten. Horixe esan nahi nizun. (*Isilunea*)

CAROL: Zer esan nahi duzu?

JOHN: Esan dudana besterik ez. Nire aurreneko oroitzapenak, zahar eta iraunkorrenak, lerdoa nintzela esaten zidatenekoak dira. “Halako *buru azkarra* edukita, nola liteke hain *inozo* portatzea?” Edo “Ezin al duzu *ulertu*?” “Ezin al duzu *ulertu*?” Eta *ezin* nuen ulertu. *Ezin* nuen ulertu.

CAROL: Zer?

JOHN: Ezta arazorik sinpleena ere. Gailendu egiten ninduen. Misterio bat zen.

CAROL: Zer zen misterioa?

JOHN: Nola ikaste ote duen jendeak. Nola ikasi ote dudan nik. Eta horretaz aritu naiz ni klasean. Eta, *noski*, zuk ez duzu hori aditu ere egin nahi; Carol. Ezin duzu, *noski*. (*Isilunea*) Hara, “Jende jatorraz” hitz egiten nuen, eta jende *jatorrak* zer egite ote zuen galdetzen nion neure buruari. Jende *jatorra*. Zein da jende hori? Ni ez, gainontzeko beste guztiak. Jende *ona*. Jende *kapaza*. Nik egin ezin nuena egiteko gauza zen jendea: ikasi, estudiatu, ikasitakoa gogoan hartu... *zabor* guzti hori —eta horixe da, hain *zuzen*, esaten aritu naizena—. Beti hala esaten badizute... Entzun hau ondo: haurrari ulertzeko gai ez dela esaten badiozu, bere buruaren *deskizio* bat dela irudituko zaio: Nor naiz ni? *Ulertzen ez duen hori* naiz ni. Eta han ikusten zintudan, txokoa, kontzeptuaz eta legeaz ari ginela.

CAROL: Ez dut bakar bat ere ulertzen.

JOHN: Beno, ba, hori *nire* errua da. Ez da zure errua. Eta ez da esate hutsa. Bene benetan uste dut hori dela egia. Eta oso sentitzen dut, eta barkazioa eskatzen dizut.

CAROL: Zergatik?

JOHN: Buruan beste *zeozertan* edukiko nuelako, noski... *etxea* erostekotan gabiltza, eta...

CAROL: Jendeak lerdoa zinela esaten al zuen...?

JOHN: Bai jauna.

CAROL: Noiz?

JOHN: Esango dizut noiz: nire bizitza osoan. Haurtzaroan; eta beharbada gero ixildu egingo ziren, baina nik hala entzun izan diet harrez gero ere.

CAROL: Eta zer esaten zuten?

JOHN: Inkompetentea nintzela esaten zuten, Zer iruditzen zaizu? Eta gaur egun aztertzen nauten bakoitzean, *ikastearen gai berari* buruz gaztetan neuzkan *beldurrak* agertzen dira. Eta “ezereza” bihurtzen naiz... eta “prestatu gabea” sentitzen dut nire burua...

CAROL: ... bai.

JOHN: ... e?

CAROL: ... bai.

JOHN: Bai. Eta porrot egiten dut. (*Isilunea*)

CAROL: ... eta porrot egiten duzu, alegia. (*Isilunea*) Derrigorrez. (*Isilunea*) Ezta?

JOHN: Imajina ezazu piloto bat. Hegazkina gidatzen. Pilotoa hegazkina gidatzen ari da. Eta bere artean... Uzkia!, erabat joan zait burua. Ai ene! Zer inozo klase ote naiz? *Bizitza* karga preziatu honen ardura izanda, nola liteke nire arreta noraezean galtzea? Jaiotzea ere! Zein engainatuak dauzkadan nigan konfidantza jarri dutenak... eta abar, eta honela, hegazkina lurraren kontra txikitzen duen arte.

CAROL: (*Isilunea*) Nahikoa zuen...

JOHN: Hori da.

CAROL: Esan zezakeen:

JOHN: Arreta *galdu* dut une batez...

CAROL: ... Ah, ah...

JOHN: Gustatzen ez zitzaidan *pentsemendu* bat izan dut... baina orain:

CAROL: ... baina orain ga...

JOHN: Bete betean gaude mamian. Arreta jartzeko garaia da... Ikusten! Hauxe da ikasi dudana: ez da majia kontua. Bai. Bai. *Zu*. Zeu izutu egingo zara; aurre egin beharreko ezer, azterketa gisa somatzen baduzu, nahiz eta ez izan, erabat ikaratuko zara. Eta esango duzu: “Ez naiz gauza...” Eta *ez naiz* guztiekin batera bi gauza hauek pentsatuko dituzu: “Egin beharra daukat. Baina ezin dut”. Hala pentsatuko duzu: zergatik jaio ote naiz jende guztiaren barregarri izateko, denak ni baino hobek diren mundu honetan? Ezertarako eskubiderik ez daukadan mundu honetan. Ikasi ere egin ezin dudan mundu honetan.
(*Isilunea*)

CAROL: Hori da... (*Isilunea*) Hori al da nik egi...?

JOHN: Beno. Nik ez dakit horrela esango nukeen. Nire semeari hitz egingo niokeen bezalaxe ari natzaizu. Hori baita berari suertatzea gustatuko litzaidakeena; niri sekula gertatu ez zaidana. Inork niri honelaxe hitz egin egitea gustatuko litzaidakeenez gero, bada, halaxe ari natzaizu ni. Ez dakit nola hitz egin, oso era *personalean* ez bada... baina...

CAROL: Zer dela eta nahiko zenuke nirekin pertsonala izatea?

JOHN: Beno, Ikusten?... Horixe da esaten ari naizena. Guk geuk sortutako filtoetik pasatzea da besteen jokabidea interpretatzeko... (*Telefonoak jotzen du*) interpretatzeko dugun... (*Telefonoz:)* Esan...? (*CAROLi:)* ...modu bakarra. (*Telefonoz:)* Esan. (*CAROLi:)* Une bat, faborez. (*Telefonoz:)* Esan? Ez, orain ezin dut hitzegi... Segituan... Segitu... ba al zien?... bai. Hitz egin dinat berarekin. Hantxe bilduko gaitun... Ez, *ikasle* batekin nagoelako. Ondo aterako... hau ere inportantea dun. *Ikasle* batekin negon, Jerry joango dun... Entzun: zenbat eta lehenago moztu, orduan eta lehenago ailegatuko naun, konforme? Maite haut. Entzun, entzun, oso "maite haut" esan dinat, ondo aterako dun... horrela... hala uste dinatelako; oraintxe ninan, konforme? Beno, ba behar den guztia luzatuko dun. (*Eskegi egiten du*) (*CAROLi:)* Barkatu.

CAROL: Zer berri?

JOHN: Arazo batzu ditugu, normal den bezala, etxe berriaren azken tratuan.

CAROL: Etxe berri bat erosi behar duzu.

JOHN: Halaxe da. Bai.

CAROL: Zure izendapen berria dela eta.

JOHN: Bai, hala izango da, noski.

CAROL: Zergatik gelditu zara hemen nirekin?

JOHN: Hemen gelditu.

CAROL: Bai. Honez gero joana behar zenuen.

JOHN: Oso gustokoa zaitudalako.

CAROL: Gustokoa nauzu.

JOHN: Bai.

CAROL: Zergatik?

JOHN: Zergatik? Ba... Beharbada oso antzekoak garelako. (*Isilunea*) Bai. (*Isilunea*)

CAROL: "Mundu guztiak dauzka arazoak" esan duzu.

JOHN: Mundu guztiak dauzka arazoak.

CAROL: A, bai?

JOHN: A, ez?

CAROL: Zuk ere bai?

JOHN: Bai.

CAROL: Zer arazo?

JOHN: Beno. (*Isilunea*) Beno, arrazoi guztia duzu. (*Isilunea*) “Irakasle” eta “Ikasle”aren arteko *Gaitziritzi* Artifiziala alde batera utziko dugu, azken finean zergatik izan beharko lukete *nire* arazoek zeureak baino misteriotsuagoak? Nik ere arazoak dauzkat, *noski*, ikusten duzun bezala.

CAROL: ... zerekin?

JOHN: *Emaztearekin... lanarekin...*

CAROL: Lanarekin?

JOHN: Bai. Eta... eta, agian nire arazoak... ikusten? Zureen *antzekoak* dira.

CAROL: Kontatuko al zenizkidake?

JOHN: Bai. (*Isilunea*) *Berandu* hasi nintzen irakaskuntzan. Eta Artifiziala iruditu zitzaidan. “Nik badakit eta zuk ez”; eta *esplotazio* bat ikusi nuen irakaskuntzaren prozesuan. Lehen ere esan dizut. Eskola gorroto nuen, irakasleak ere bai. “Nagusi” paperean zegoen edonor, banekielako —eta ez zen uste hutsa, ulertzen— *banekien*, porrot egingo nuela. Zergatik? Desastre hutsa bat nintzelako. Izpirik ere ez nuen onetik. Gero... bizitzan aurrerago... (*Isilunea*) *Azpi-azpitik irten* nintzenean... Betiko porrot egin behar hartatik ateratzeko modua ikastea lortu nuenean...

CAROL: Nola egiten duzu hori? (*Isilunea*)

JOHN: Zer zaren, zer sentitzen duzun, eta nola jokutzen duzun begiratu behar duzu. Eta, azkenean, zure jokabideari begiratu behar diozu. Eta esan: Hau egin badut, horixe pentsatu beharko dut nitaz.

CAROL: Ez dut ulertzen.

JOHN: Etengabe porrot egiten baduzu izango da, desastre bat zarela pentsatzen duzulako. Desastre bat zarela pentsatu nahi ez baduzu, noiz edo noiz *arrakasta izaten* hasi beharko duzu, agian. Begira frogak, eskolako frogak, unibertsitatekoak, bizitzan suertatzen zaizkigun frogak, gehienetan txotxoloentzat diseinatuak izan dira. Txotxoloak diseinaturik, gainera. Ez duzu zertan porrot egin beharrik. Ez dira zure balioa frogatzeko. Informazio kaxkarra jaso, gogoan eduki eta berriro botatzeko baizik. Azterketan porrot egiten duzu, *noski*. *Tontokeriak* dira.

CAROL: Ez.

JOHN: Bai. *Zaborra* besterik ez. Txiste bat. Begira nire kasua. Begiratu ni. Katedra Tribunal. Katedra Tribunal. Ni epaitzera dator. Katedra Tribunal Okerra. “Azterketa”. Ikusten? Aztertu egin naute. Pentsa, nik kotxea garbitzeko ere kontratatuko ez nukeen jendea, niri botoa eman ez. Eta, hala eta guztiz ere, Katedra Tribunal Nagusiaren aurrean jarri eta *nazka* ematen dit, gora... goragalea, nire *txardade guztia* mahai gainean jarri eta erakusteko: “Ni ez naiz ona. Zer dela eta aukeratuko nauzue *ni*?”

CAROL: Katedra agindu dizute.

JOHN: Ez, ez, jakitera eman dute baina oraindik ez dute *sinatu*. Ikusten? “Edozein momentutan...”

CAROL: ... mmm...

JOHN: “Beharbada ez dute *sinatuko*”... Nik agian ez dut... agian *etxearena* ez da aurrera aterako... E? E? Nire “sekretu beltza” jakitera iritsiko dira.” (*Isilunea*)

CAROL: Eta zein da...?

JOHN: Ez dago halakorik. Baina nire txardadearen aztarnen bat aurkituko *dute*...

CAROL: Aztarna?

JOHN: Bai... seinale bat. Konturatzen zara? Ikusten? *Ulertzen* zaitut. Ba. Dakit. Zer. Den. Sentimendu. Hori. Ba ote daukat nik eskubiderik etxeaz, emazteaz, lanaz... Eta Irakaskuntzaren teoria hori, *teoria* hori...

CAROL: Nik... nik... (*Isilunea*)

JOHN: Zer?

CAROL: Nik...

JOHN: Zer?

CAROL: Nire nota jakin nahi dut. (*Isilune luzea*)

JOHN: Noski.

CAROL: Txarra al da hori?

JOHN: Ez.

CAROL: Txarra al da hori galdetzea?

JOHN: Ez.

CAROL: Gaizki hartu al duzu?

JOHN: Ez. Eta barkamena eskatzen dizut. Zure nota jakin nahi duzu, *noski*. Eta, jakina, ezin zara beste ezertan konzentratu... (*Telefonia jotzen hasten da*) Itxoin piska bat.

CAROL: Joan egin beharko nuke.

JOHN: Tratu bat egingo dugu.

CAROL: Ez, zuk, zera...

JOHN: Jo dezala. Tratu bat egingo dugu. Gelditu zaitez hemen. Hutsetik hasiko dugu berriro kurtso osoa. Esango dut ez zarela zu izan, ni baizik, arretarik jarri ez duena. Hutsetik hasiko dugu berriro kurtso osoa. Zure nota "Oso bikain" da. Zure azken nota "Oso bikain" da. (*Telefonia isildu egiten da*)

CAROL: Baina kurtso erdia besterik ez dugu egin...

JOHN: (*"egin"-ekin batera*) Zure nota "Oso bikain" da kurtso guztirako. Berriz etorri eta nirekin biltzen bazara. Bizpahiru alditan... Zure nota "Oso bikain" da. Ahaztu azterketa. Ez zitzazun gustatu. Ez zenuen gustora idatzi. Ez du inolako garrantzirik. Niretzat garrantzizkoa zure interesa piztea da, ahal badut, eta zure galderei erantzuna ematea. Has gaitezen hutsetik berriro. (*Isilunea*)

CAROL: Berriro? Zerekin?

JOHN: Eman dezagun hau dela hasiera.

CAROL: Hasiera.

JOHN: Bai.

CAROL: Zerena?

JOHN: Kurtsoarena.

CAROL: Baina ezin dugu berriz hasi.

JOHN: Nik baietz esaten dut. (*Isilunea*) Baietz esaten dut.

CAROL: Ezin dut sinistu.

JOHN: Bai, badakit. Baina egia da. Zer da klasea zu eta biok besterik? (*Isilunea*)

CAROL: Arauak daude.

JOHN: Ederki, hautsi egingo ditugu.

CAROL: Nola?

JOHN: Ez diogu inori esango.

CAROL: Hori ondo al dago?

JOHN: Ondo baino hobeto.

CAROL: Zergatik egingo zenuke hori niregatik?

JOHN: Atsegin zaitudalako. Hain zaila al da zuretzat...

CAROL: Um...

JOHN: Hemen biok bakarrik gaude. (*Isilunea*)

CAROL: Konforme. Ez nuen ulertu. Aipatu zenuenean...

JOHN: Bai; aurrera...

CAROL: Zirikatzeari buruz ari zinenean.

JOHN: Zirikatzea.

CAROL: Zure liburuan idatzi zenuen. Konparatiboari buruz... konparatibo... (*apunteak begiratzen ditu*)

JOHN: Apunteak begiratzen ari zara...?

CAROL: Bai.

JOHN: Esaidazu zeure hitz...

CAROL: Zuzen jaso dudala ziurtatu nahi dut.

JOHN: Ez. Zehatza izan nahi duzu, noski.

CAROL: Dakidana jakin nahi dut...

JOHN: ... ondo dago hori...

CAROL: ... beraz, ni...

JOHN: Oso ondo. Baina nik aditzera eman nahi dizudana da, askotan, gogoan hartu behar dugun hori, nire iritzirako, hobeto jasotzen dugula *gehienetan* ahalengin nekagarririk egin gabe.

CAROL: (*Apunteetatik*) Hementxe dago: *zirikatzeari* buruz idatzi zenuen.

JOHN: Halaxe da. Ea: "Zirikatzea" esan nuen. Erritu bihurtutako amorraraztea, alegia. Begira. Liburu hau bota eta irakurtzeko esaten dizuet. Orain, zuk, irakurri egin duzula diozu? Nik ezetz. *Galderaz josiko* zaitut eta hutsean harrapatzen zaitudanean, etsi-etsi egin eta bizitza hondatuko zaizu. Joko nazkagarria da. Orduan, zergatik egiten dugu hori? Ezer ikasiko al dugu? Ezta gutxiagorik ere. Orduan, zer da goi-mailako hezkuntza? Baliagarria ez, beste zerbait da.

CAROL: Zer da "baliagarria ez, beste zerbait"?

JOHN: Erritu bihurtu dugu, fede-gai. Den-denok menpe egon behar dugularik. Bestela esateko, denok dugula goi maila hezkuntzarako eskubidea. Eta nire ikus puntua...

CAROL: Ez zaude horrekin ados?

JOHN: Beno, azter dezagun nora garamatzen honek. Zer iruditzen zaizu?

CAROL: Ez dakit.

JOHN: Baina zuri zer iruditzen zaizu? (*Isilunea*)

CAROL: Ez dakit.

JOHN: Horretaz aritu nintzen ni klasean. Gogoratzen al duzu nire adibidea?

CAROL: Justizia.

JOHN: Bai. Errepikatuko al zenidake... (*Carol koadernoan begiratzen hasten da*) apunterik gabe! Niretzako mesede bezala eskatzen dizut, ea nire idea interesgarria zen ala ez jakiteko.

CAROL: "Justizia" esan zenuen...

JOHN: Bai?

CAROL: ... denok dugula eskubidea... (*Isilunea*) Ni... ni... ni...

JOHN: Bai. Epaiketa azkar bat edukitzeko. Epaiketa garbi bat. Baina ez gaituzte epaitu behar, akusatirik ez ba gaude. E? Justizia eskubide dugu; horretaz baliatzea aukeratuko bagenu, epaiketa garbi bat izan beharko genuke. Honen ondorioa ez da, pertsona batek bizitza osatugabea daukanik epaitua izan ez bada. Ulertzen? Ulertzen didazu?

Egokitasunaren eta erabilgarritasunaren arteko nahasmena da nire planteamentuaren erroa. Hau da, nahastu egiten ditugu goi mailako hezkuntzaren *balioa* eta goi mailako hezkuntzara iristeko aitortu zaigun berdintasun eskubidea. Eta, *aurriritzi* bat sortzen dugu, inolako loturarik ez duena...

CAROL: ... aurriritzia dela Unibertsitatera joan beharra?

JOHN: Hain zuzen. (*Isilunea*)

CAROL: Nola esan dezakezu hori? Nola...

JOHN: Hola, hola, Ondo. Horixe! Bota! Zer da aurriritzi bat? Arrazoitu gabeko iritzia. Denok dauzkagu aurriritziak. Inor ez da hortik libre. Aurriritziak kolokan jartzen direnean, edo kontra egiten zaienean, haserretu egiten gara, eta gure burua sentitzen dugu... Ezta? Zu oraintxe bezalaxe. Ez al da hala?

CAROL: ... baina nola esan dezakezu...

JOHN: ... azter dezagun. Ondo.

CAROL: Nola...

JOHN: Ondo. Ondo. Ikus dezagun...

CAROL: HITZ EGITEN ARI NAIZ... (*Isilunea*)

JOHN: Barkatu.

CAROL: Nola esan deza...

JOHN: Barkamena eskatu dizut.

CAROL: Ez da ezer.

JOHN: Barkamena eskatzen dizut.

CAROL: Ez da ezer.

JOHN: Barkatu moztu dizudalako.

CAROL: Ez da ezer.

JOHN: Zertaz ari ginen ?

CAROL: Esaten ari nintzen... esaten ari nintzen... (*apunteak begiratzten ditu*) Nola esan dezakezu klase batean, unibertsitateko klase batean, goi mailako hezkuntza aurriritzia dela?

JOHN: Hobetsi dugula esan dut nik.

CAROL: Hobetsi...

JOHN: ... badakizu zer esan nahi duen.

CAROL: “nahiago izan” esan nahi du?

JOHN: Bai.

CAROL: Baina... nola esan dezakezu hori? Unibertsitateko...

JOHN: ... lanbidea dut, ez al zenekien?

CAROL: Zer?

JOHN: Probokatzea.

CAROL: Ez.

JOHN: Ba, bai, hala da.

CAROL: Ni probokatzea?

JOHN: Hori da.

CAROL: Ni erotzea?

JOHN: Hori da. Zu behartzea...

CAROL: ... ni erotzea da zure lana?

JOHN: Ez. Zu behartzea... Entzun. (*Isilunea*) Ah. (*Isilunea*) Gaztea nintzela batek esan zidan —eldu, e!— aberatsek pobreek baino gutxiagotan egiten dutela larrutan, baina egiten duten bakoitzean, arropa gehiago erazten dutela. Urteetan, urteetan, ez pentsa, nire esperientzi propioa konparatuko nuen esaera horrekin eta esan: aha, horrek bete egiten du araua, edo, aha, beste hau arauaren aldaera da. Zer esan nahi zuen horrek? Ezertxo ere ez. Ikastola-lagun batek esan eta buruan kokatu zitzaidan txorrada bat zen .

Norbaitek hala esan *zizun* eta fede-gai bailitzen onartu zenuen, goi-mailako irakaskuntza ondasun ikutezina dela. Hain gogoko duzu nozio hori, nik auzitan jartzean haserretu egiten zarela. Ondo. Ondo. Ez al dira ba, gauza horietzek, hain zuzen, auzitan jarri beharko genituzkeenak? Nik diot: Unibertsitatea, hain ezinbesteko bihurtu da, urte batzuz geroztik, hain modan dago premia, erabat zabaldu den burgesiarentzat, eskubide soiltzat hartzen dutela eta utzi egin diote galdetzeari: “zertarako balio du”? (*Isilunea*)

Zeintzuk izan litezke goi-mailako irakaskuntzara iritsi nahi izateko arrazoiak?

Bat: Ikasteko gogoia.

Bi: Gai bat ondo menderatzeko desioa.

CAROL: Zu entretenitzen ari naiz.

JOHN: Itxoin piska bat. Ohar bat idatzi behar dut.

CAROL: Nik esan dudan zerbaiti buruz?

JOHN: Ez, etxea erostekotan gabiltza.

CAROL: Etxe berria erostera zoaz.

JOHN: Katedrarekin bat etortzeko. Halaxe da, bai. *Etxe* polit bat, *eskola pribatu baten* ondoan... (*oharra idazten jarraitzen du*) Egoera ekonomikoa *hobetzeaz* ari ginen. (*CAROLek koadernoan idazten du*) Eskolako zergetan ari nintzen pentsatzen... (*idazten jarraitzen du*) (*Berekiko*) *Non dago ba idatzia nire semea eskola publikora bidali behar dudanik...* lege ote da ba nik institutu publikoak hobetu beharra izatea neure interesen bizkarretik? Eta zer da ba hori *Gizon Zuriaren Ardura zibilizatzailea* besterik? Ongi. Eta... (*CAROLi begiratzen dio*) interesatu egiten al zaizu?

CAROL: Ez. Apunteak hartzen ari naiz.

JOHN: Ez daukazu apunterik hartu beharrik, entzutearekin nahikoa duzu.

CAROL: Gogoratuko dudala ziurtatu nahi dut.

JOHN: Ez naiz klasea ematen ari, pentsatzen ditudan gauza batzuk esaten ari naiz, besterik gabe.

CAROL: Eta zer pentsatzen duzu?

JOHN: Neska-mutil guztiek joan beharko al lukete unibertsitatera? Zertara?...

CAROL: Ikastera.

JOHN: Eta ez baldin badute ikasten...

CAROL: Ez baldin badute ikasten?

JOHN: ... orduan zergatik daude unibertsitatean? Heuren "eskubidea" dela esan zaielako?

CAROL: Unibertsitatea aberasgarria dela pentsatzen duenik izango da.

JOHN: Bai. Sinistea gustatuko litzaidake...

CAROL: Baina nola sentituko dira? Denbora alferrik galtzen dutela esaten zaienean?

JOHN: Ez zait iruditzen hori esaten ari naizenik.

CAROL: Zuk esan duzu irakaskuntza "zirikatze luze eta sistematikoa" dela.

JOHN: Beno. Horixe izan daiteke.

CAROL: Irakaskuntza hain *txarra* baldin bada, zer dela eta ari zara zu?

JOHN: Benetan gustokoa dudalako (*Isilunea*) Begira... Eman diezaiogun begiratu bat demografiari eta ikus dezagun soldata irabazteko ahalmena, unibertsitatean ikasi eta ikasi ez duten gizon-emakumeen artean, azken berrogeitahamar urteotan eta ea ezer probetxuzkorik ateratzen dugun estadistiketatik. E?

CAROL: Ez.

JOHN: Zer?

CAROL: Ez ditut ulertzen.

JOHN: ... zuk ez dituzu...?

CAROL: "Estadistikako grafikoak". Kontzeptuak...

JOHN: Ez dago grafiko bat baino gauza sinpleagorik...

CAROL: Kurtsoa bukatzean...

JOHN: Ordurako ulertuko...

CAROL: Ez, ezin dut...

JOHN: Bai, ulertuko dituzu, bai jauna.

CAROL: EZ, EZ-EZ DUT ULERTZEN. EZ ZARA KONTURATZEN? EZ DUT ULERTZEN...

JOHN: Zer?

CAROL: *Ezer ere ez. Ezertxo ere ez. Klasean irribarre egiten dut, irribarre egiten dut denbora guztian. Zertaz hitzegiten duzu? Zertaz ari da mundu guztia hitzegiten? Ez dut ulertzen. Ez dakit zer esan nahi duen. Ez dakit zer esan nahi duen hemen egoteak... Azkarra naizela esaten didazu eta gero esaten didazu ez nukeela hemen egon behar, zer nahi duzu nigandik? Zer esan nahi du horrek? Nori kaso egin beharko nioke... ni... ni...*

(John Carolengana hurbiltzen da eta bizkar gainean jartzen dio besoa)

EZ! (Carolek alde egiten dio)

JOHN: Shhh.

CAROL: Ez, ez dut uler...

JOHN: Shhh.

CAROL: Ez dakit...

JOHN: Shhh. Lasai.

CAROL: ... ez daukat...

JOHN: Shhh. Shhh. Lasaitu zaitetz. *(Isilunea)* Shhh... Zabaldu. *(Isilunea)* Lasai *(Isilunea)* Lasai. *(Isilunea)* Shhh. *(Isilunea)* Ulertzen dut... *(Isilunea)* Zer sentitzen duzu?

CAROL: Gaizki sentitzen naiz.

JOHN: Badakit. Lasai.

CAROL: Nik... *(Isilunea)*

JOHN: Zer?

CAROL: Nik...

JOHN: Zer? Esan.

CAROL: Ez zaitut ulertzen.

JOHN: Badakit. Lasai.

CAROL: Nik...

JOHN: Zer? (*Isilunea*) Zer? *Esaidazu.*

CAROL: Ezin dizut esan.

JOHN: Bai. Esan egin behar didazu.

CAROL: Ezin dut.

JOHN: Bai. *Esaidazu. (Isilunea)*

CAROL: Gaiztoa naiz (*Isilunea*) Ai ama. (*Isilunea*)

JOHN: Lasai.

CAROL: Gaiztoa...

JOHN: Lasai.

CAROL: Ezin dut horretaz hitz egin.

JOHN: Lasai. Kontaidazu.

CAROL: Zergatik jakin nahi duzu?

JOHN: Ez dut jakin nahi. Edozer gauza jakin nahi dut zutaz...

CAROL: Ni beti...

JOHN: Bai...

CAROL: Ni beti... nire bizitza osoan... ez diot hau inori kontatu...

JOHN: Bai. Segi. (*Isilunea*) Jarraitu.

CAROL: Nire bizitza osoan... (*Telefonoak jotzen du*) (*Isilunea*) (*Johnek, telefonora hurbildu eta hartu egiten du*)

JOHN: (*Telefonoz*) Bai? Orain ezin dut hitzegi... (*Isilunea*) Zer? (*Isilunea*) Hmm. (*Isilunea*) Konforme, ni... Orain-ez-daukadala-hitz-egiterik. Ez, ez, ez. *Bazekinat*, baina... Zer? Esan. Zer? Berak zer? *Ezin din...* kontratua hautsi egin duela? Nola, zergatik hautsi din? *Etxe Hori Gurea Dun*. Neronek zeukanat *agiria*. Datorren astean ordaintzera joaten garenean agiriarekin, etxe hori gur... itxaron, itxaron, itxaron, itxaron, itxaron, itxaron: Jerry-k... Jerry hor al dun? (*Isilunea*) Hor al dun *ajentziakoa?* *Abokatuarekin* dagoela? Nola *arraio*, nola *arraio* ordea...? Kontua dun, herorrek esan hidan... *Bide-zorraren* asuntoa. Ez dinat uler... ez dun *kontratu osoa*, *Bide-zorra* besterik ez dun, zergatik ote?... Esan, esan Jerryri jartzeko. (*Isilunea*) Jer... Jerry: zer *arraio*... hori nire *etxea* duk. Hori... Beno, ni, ez, ez, ez, ez niek... E, *esaiok*, *popatik hartzera joan...* *Esaiok...* Entzun: hartzak *Grace*, *Grace* hartu eta atera etxe horretatik. *Utzi* hortxe bertan emakume eta bere abokatua, eta *esan* hurrengoan auzitegian ikusiko dugula elkar... ez. Ez. Utzi hor, utzi hortxe, *izorra dadila* esaiok etxe hori *ortu egingo* diagula eta ikusiko duela nola... Ez. *Ez nauk* joango. (*Isilunea*) Zer? (*Isilunea*) Zer? (*Isilunea*) Ez diat ulertzen. (*Isilunea*) Beno, zer diok etxeaz? (*Isilunea*) Ez zegok inolako arazorik etxe... (*Isilunea*) Ez, ez, ez, hori ondo zegok. On... ondo. (*Isilunea*) Jakina... Es... Eskerrik asko. Horixe joango naizela. Oraintxe bertan. (*Eskegi egiten du*) (*Isilunea*)

CAROL: Zer berri? (*Isilunea*)

JOHN: Sorpresako festa bat.

CAROL: Ta!

JOHN: Ba horixe.

CAROL: Festa bat zuretzat.

JOHN: Bai.

CAROL: Zure urtebetetzea al da?

JOHN: Ez.

CAROL: Orduan, zer?

JOHN: Nire katedrarena ospatzeko.

CAROL: Zure katedrarena ospatzeko.

JOHN: Baita etxe berria erostearena.

CAROL: Zure etxe berria.

JOHN: Erosiko duguna.

CAROL: Joan beharra daukazu.

JOHN: Hala ematen du. Bai.

CAROL: (*Isilunea*) Harro daude zurekin.

JOHN: Beno, batek baino gehiagok esango luke sorpresa bat dela...

CAROL: Bai?

JOHN: Erasotzeko modu bat.

(John eta Carol idazmahaian eserita, alde banatan)

- JOHN: Entzun hau ondo. (*Isilunea*) Oso gustokoa dut irakastea. Eta horretarako dudan *trebeziaz* harro nago. Eta oso gustokoa dut irakasteak duen *teatral* alderdia. Aitortu beharra daukadala uste dut. Irakastea gustoko nuela ohartu nuenean, zin egin nuen, ez nintzela bihurtuko gaztetan topatu nituen irakasle automata, hotz eta zorrotz haiek bezalakoa. Orduan, beste muturreraino pasatzeko joera nuela ikusi nuen. Beraz, galdetu egin nion nire buruari eta oraindik ere *galde egin egiten diot*, ez ote nintzen “nire ikasleen kalterako” heterodoxian erori — ez dut esango “besterik gabe erori”, ez bainuke nahi, ortodoxia eman izan zaigun ondasuntzat hartzea—. (*Isilunea*)
 Esan bezala, gero katedrarako aukera suertatu zitzaidan eta, jakina, aspaldian haren atzetik nenbilenez gero, ba *poztu* egin nintzen eta *gutiziaz* desiratu nuen, noski.
 Gutizia bera bidezkoa ote zen galdetu nion nire buruari. Luze pentsatu dut horri buruz, eta zintzoki, hala espero, eta ikusi ahal izan dut, ba dudala nire baitan zenbait gauza harrigarri. (*Isilunea*)
 Gogoko dudala. Benetan *desiratu egiten* dudala, ez naizela segurtasuna irrikatzetik libre eta beharbada horrexegatik, ez dagoela nire burua zertan gaitzetsirik. Baditudala Unibertsitateaz *gain* beste betebeharrak batzu eta esate baterako, etxekoekiko erantzukizunek eduki egin behar dutela, dagoeneako ez badute, besteak bezainbesteko pisua. Katedra, eta segurtasuna, eta, nola ez, *erosotasuna* ere, ez direla berez gaitzestekoak; are gehiago oraindik, irrika ohoragarria merezi dutela. Eta hori niri poza eta zoriona zihurtatzeko emana izan zait —Materialtasunari dagokion neurrian— hementxe, atsegin eta laket zaidan fakultate honetantxe. Zeren truke? Irakastearen truke, atsegin dudana, bestalde.
 Zer prezio du segurtasun honek? *Katedra* lortzea. Tribunalala niri ematekotan dabilen katedra hori, hain zuzen. Eta horren ondorioz, etxe berri bat erosteko tratua egin dut. Aditu. Zuk oraingoz seme-alabarik ez daukazunez gero, ez duzu jakingo noski, horrek zer esan nahi duen. Baina niretzat garrantzi handia du. Etxe bat. Etxe on bat. Nire seme-alabak hazteko. Ederki, Katedra Tribunalala bildu egingo da. Hori da prozedura, eta prozedura *ona* da. Honen arabera aspalditik funtzionatu izan du Unibertsitateak. Bildu egingo da eta zure demanda entzun egingo du —emateko eskubide osoa daukazu—. Baina atzera botako dute. *Gaitzetsi* egingo dute zure demanda; eta, bienbitartean, nik etxea galduko dut. Ezin izango dut tratua erabat itxi. Jarri nuen *seinalea* galdu egingo dut, eta nire emazte eta semearentzat aukeratu dudan etxea pikutara joango da. Begira: badakit amorrarazi egin zaitudala. Ulertzen dut irakasleei diezun gorrotoa. Ni ere haserretu nintzen nireekin. Mindu eta umiliatu egin ninduten. Horixe da ni irakaskuntzan sartu izatearen arrazoietariko bat.
- CAROL: Zer nahi duzu nigandik?
- JOHN: (*Isilunea*) Minduta nengoen. Katedra Tribunalaren txostena jaso nuenean. Harri eta zur gelditu nintzen. Minduta. Ez, ez zaitut nire sensibilitate ahularen menpe jarriko. Ederki. Azken finean, ez nuen ulertu. Gero pentsatu nuen: ez ote dira beti kolokan jarri ezinak derizkiogun ezaugarri horietzek denetarik ahulenak... (*Isilunea*) Konforme. Pedantea naizela iruditzen zaizu. Hala naiz, bai. Berezkoa dut, *jaiotzatik*, lanbidez, ez dakit... Beti *paradigma* baten bila nabil...
- CAROL: Ez dakit zer den paradigma.
- JOHN: Eredu bat da.
- CAROL: Orduan, zergatik ez duzu hitz hori erabiltzen? (*Isilunea*)
- JOHN: Zuri garrantzizkoa iruditzen bazaizu. Bai, konforme. Eredu baten bila nenbilan. Jarrai dezadan: niri iruditzen zait...
- CAROL: Ni...

JOHN: Segundo bat... kolokan jarriezina duten puntuetariko bat ikasleen duintasunarekiko dudana arduratzen dela. Begira. Hona etortzeko eskatu dizut... gauzak *aztertze*ko asmoz, zuri galdetzeko... galde egiteko... (*Isilunea*) Zer egin dizut nik? (*Isilunea*) Eta, eta, eta nola zuzendu ditzaket gauzak. Ezin al dugu hau oraintxe konpondu? Ez du zentzurik, egia esan, eta jakin egin nahi dut.

CAROL: Zer egin dezakezun ni atzera egitera behartzeko?

JOHN: Ez dut horrelakorik esan nahi izan.

CAROL: Ni sobornatzeko, ni konbentzitzeko...

JOHN: ... Ez.

CAROL: Atzera eginarazteko.

JOHN: Ez dut horrelakorik esan nahi izan. Badakizu ezetz.

CAROL: Ez da hori dakidana. *Nahiago nuke*, nik...

JOHN: Ez dut nahi... Zer nahiago zenuke?

CAROL: Ez, zuk esan duzu, “nola zuzendu ditzaket gauzak”. Ni atzera egitera behartzeko.

JOHN: Ez dut hori esan.

CAROL: Apunteak dauzkat.

JOHN: Begira, begira. Estoikoek diote...

CAROL: Estoikoek?

JOHN: Filosofo estoikoek diotenez “mindu egin naute” esaldia gaineratik kentzen duzunean, mina bera ere kendu egiten duzu. Orduan, erreflexionatu; badakit minduta zaudela. Esaidazu, hitzez hitz. Zehatz-mehatz: zer kalte egin dizut nik?

CAROL: Zernahi egin didazula ere —kontuan izan *neroni* egin didazula e, eta ikasle bati baino, ikasle talde osoari dagokion neurrian— jasoa dago txostenean. Katedra Tribunalari emandako txostenean.

JOHN: Beno, konforme. (*Isilunea*) Azter dezagun, orduan. (*Irakurri egiten du*) Sexista naizela konturatzen naiz. Elitista naizela. Ez dakit seguru ba ote dakidan zer esan nahi duen horrek, ez bada mespreziosko hitz bat, “txarra” adierazten duena. Ni... denbora alferrik galtzen saiatzen naizela, seinalatutako *testutik* kanpo *zeharbidezko aldaketa*, nirekoiak eta teatralak eginez... aldaketa horiek kutsu sexista eta pornografikoa hartu dutela... zerrenda honetan aurkituko ditugu... (*Isilunea*) Zerrenda honetan... adibideak “ikasle batekin gelaturik”... “istorio korapilatsu eta sexualki adierazgarri bat kontatu zidan; bertan, pobreek eta aberatsek larru-jotzean dituzteneko joerak eta maiztasuna ziren, antza denez, gai nagusia... aipatutako ikaslea *besarkatzera* joan zen... den-dena eredu jakin baten arabera...” (*Isilunea*) (*Irakurri egiten du*) “Gizon Zuriaren Arduratzen Zibilizatzailea” esaldia erabili nuela... nire gelara etortzeko eskatu nizula, ze oso gus... zuk bezala nik ere irakurri egingo dut: (*Isilunea*) (*Irakurri egiten du*) “Gustokoa” ninduela esan zuen. “Atsegin zuela nirekin egotea”. “Azterketa berriro egiten utziko zidala, maizago joaten baldin banintzen bere bulegora”. (*Isilunea*) (*CAROLi*) Hau *barregarria* da. Ez al zara konturatzen? Ez da *beharrezkoa*. *Umiliatu* egingo zaitu. Nik *etxea* galduko dut, baina zuk...

CAROL: “*Barregarria*” al da?

(*JOHNek txostena hartu eta berriz irakurtzen du*)

JOHN: “Bere emaztearekin arazoak zeuzkala esan zidan; eta irakasle eta ikaslearen arteko gaitziritzi artifiziala alde batera utzi nahi zuela. Besoa bizkar gaineratik pasa zidan...”

CAROL: Ukatu egingo al duzu? Ukatu al dezakezu...? Ulertzen? (*Isilunea*) Ez duzu ulertzen? Ez duzu ulertzen, ezta?

JOHN: Ulertzen ez dudana da...

CAROL: Zuk uste duzu... uste duzu gauza guzti hauek benetan gertatu ez zirela esan dezakezula; edo, *gertatu* balira, benetan *gertatu* balira, zuri *iruditzen zaizuna* esan nahi dutela. Ez zara konturatzen? Arrastaka ekartzen nauzu hona, arrastaka ekartzen gaituzu, zure "erretorika" entzunaraztera; eta honi buruz edo besteari buruzko "jarioa", edo guk ez dugula gure burua oso ondo "adierazten". Guk ez dugula azaldu nahi duguna adierazten. Ezta? Ezta? *Ba bai*, azaldu nahi duguna adierazi egiten dugu. Eta zuk "Ez zaitut ulertzen..." esaten duzu: orduan, *zuk...* (*Seinalatu egiten du*)

JOHN: "Txostenetik ari zara"?

CAROL: Hala ari naiz.

JOHN: Ikusten. Ikusten. Ez al duzu ba... ikusten esaten ari naizena? Ezin al didazu zeure hitzetan esan?

CAROL: Horiek dira neure hitzak. (*Isilunea*)

JOHN: (*Irakurri egiten du*) "Esan zidan berarekin bakarka geratzen banintzen bulegoan, nire nota Oso Bikainera aldatuko zuela" (*CAROLI*) Zer egin dizut? Hain minduta al zaude?

CAROL: Nik "sentitzen" dudanak ez du axolik.

JOHN: Ba dakizu laguntzen saiatu nintzela.

CAROL: Dakidana txostenean idatzita dago.

JOHN: Orain ere lagundu egin nahi zaitut. Benetan. Guzti hau gehiago okertu baino lehen.

CAROL: Ez dut uste zure laguntza behar dudanik. Ez dut uste zugandik ezer behar dudanik.

JOHN: Nire senti...

CAROL: Ez zait *inporta* zer sentitzen duzun. Ez zara konturatzen? EZ ZARA KONTURATZEN? Hemendik aurrera ezingo duzu horrelakorik egin. Zuk-Ez-Daukazu-Botererik. Gaizki erabili al zenuen? Zuk? *Norbaitek* behintzat bai. Talde horretako partaide al zara? Bai. Bai. Ba zara. Gauza horiek *egin* egin dituzu. Eta, esatea, esatea ere... "O, utzidazu zure arazoan laguntza ematen..."

JOHN: Bai. Ikusten dut. Ulertzen dut. *Minduta* zaude. *Haserre* zaude. Bai. *Haserre*ak *salatu* egiten zaitu. Inoren mesederako ez den bide okerretik zoaz.

CAROL: *Bost axola* pentsatzen duzuna.

JOHN: A, ez? (*Isilunea*) Baina, *eskubideei* buruz hitz egiten duzu. Ez zara konturatzen? Nik ere badauzkat eskubideak. Ulertzen? *Etxe* bat daukat. *Jatorriko* mundu honen parte dena; eta Katedra Tribunalekoak; Gizon On eta Zintzoak...

CAROL: ... Irakasle jauna...

JOHN: ... mesedez: mundu honetako partaideak dira baita ere: ulertzen? Hau nire *bizitza* da. Ni ez naiz *mamua*. Ez naiz ezerren "eredu", ni...

CAROL: ... irakasle jauna...

JOHN: ... ni...

CAROL: Irakasle jauna. *Mesede* bat egiteagatik etorri naiz. Zure eskaera pertsonalari erantzunez. Beharbada ez nuen hala egin behar. Baina egin egin dut. Neure izen propioan eta nire taldearenean. Zuk, Katedra

Tribunala aipatu duzu eta dakizunez, bertako partaide bat, emakumezkoa da. Beraz, Katedra Tribunaleko pertsonak aipatzean Gizon On eta Zintzoak esatea, komentario umilagarria da. Komentario sexista da, eta komentario horri kasurik ez egitea pentsamolde sexisten jarraipena onartzea da. Komentario hori...

JOHN: NAHIKO DUGU... Ez al duzu nahikoa familia oso bati etxea galeraztearekin ?

CAROL: Nahikoa? Nahikoa? Nahikoa? Bai. *Gertaera* bat da... eta zure istorio hori, nik hitzez-hitz aditzera eman dudana, *nardagarria, eta klasista, eta manipulatzailea, eta pronografikoa* da. Histo...

JOHN: Pornografikoa?

CAROL: Zerk ematen dizu *eskubidea*? Bai. *Emakume* bati horrela hitz egiteko zure bulego... Bai. Bai. Barkatu. Barkatu. Horretarako ahalmena daukazula uste duzu. *Harro-harro ibiltzeko. Plantak egiteko*. “Antzetzeko”. “Niri hona etortzeko dei egite...” E? Goi-mailako irakaskuntza txiste bat dela esaten *duzu*. Eta horretan bilakatu egiten duzu. Halaxe *tratatzen* bait duzu. Eta *aitortzen* duzu klasean *Patriarka*-rena egitea oso gustoko duzula. *Hau* eman, *hura* ukatu. Ikasleak besarkatu.

JOHN: Baina nola esan dezakezu hori. Nola liteke hor jarri eta...

CAROL: Nola *uka* dezakezu?. *Niri* egin zenidan hori. *Hemen*. Zuk... aitortu egin duzu. Boterea ikaragarri gustoko duzu. *Desbideratzeko. Asmatzeko, hausteko...* ezarri zaigun edozein arau *hausteko...* Eta xarmangarria iruditzen zaizu burla egin eta suntsitzeko duzun zaletasun hori zure buruari “kuestionatzea”. Baina, benetan kuestionatu beharko zenuke, Irakasle jauna. Eta ustez, *aurrera eragingo* zaituzten gauzak aukeratu egiten dituzu: liburua argitaratuz, *katedra* lortuz; eta gauza horiek lortzeko pausoei “kaltegabeako errituak” deitzen diezu, baina pausoak eman egiten dituzu hipokresia dela diozun arren. Baina zure ikasleen helburuei dagokienez, *ikasle saiatuoi*, hona etortzeko *esklabuen gisa* aritu garenoi —ideia izpirik ere ez daukazu zenbat kosta zaidan fakultatera iristeak— guri *burla* egiten diguzu. Irakaskuntza “zirikatzea” deritzozu, eta zure eserleku hain babestu eta hain elitistatik gure nahasmena *txistea* dela iruditzen zaizu, eta gure esperantzak eta helburuak beste hainbeste. Gero, tronoan eseri eta “zer egin dut”? esaten duzu. Eta *zuk* ere helburu batzu badauzkazula ulertzeko eskatzen didazu. Baina nik, nik diot zu nazkagarria zarela. Eta esplotatzailea. Eta zure liburuan deskribatutako barne-zintzotasunetik pittin-pittin bat baldin badaukazu, zure baitan begiratu eta ikusten ditudan gauza horiexek ikusiko dituzu. Eta nik sentitzen dudanaren pareko nazka sentituko duzu zeuk ere. Egun on! (*Gelatik irteera doa*)

JOHN: Itxaron piska bat, mesedez, momentu bat. (*Isilunea*) Eguraldi ederra egiten du gaur.

CAROL: Zer?

JOHN: Zuk “egun on” esan duzu. Niri ederra iruditzen zait eguna.

CAROL: A, bai?

JOHN: Bai.

CAROL: Eta hori garrantzitsua al da?

JOHN: Hori da giza-komunikazioaren mamia. Nik konbentzionala den zerbait esaten dut, eta zuk erantzun, eta elkar trukutzen dugun informazioa ez da “eguraldiari” buruzkoa, baizik eta biok gaudela hitz egin egiteko ados.

Ni ez naiz... “esplotatzailea”, eta zu ez zara... zera... “zoraturako”, Zer? Iraultzailea... jarrerak, jarrera desberdinak izan ditzakegu... desioak, elkarrekin *txoke* egiten dutenak, pertsonak garelako soilik. (*Isilunea*) Horrek batzuetan *akatsak* ditugula esan nahi du. (*Isilunea*) Sarritan gaude elkarren kontra... gauza *asko* dago, arrazoi duzu, “printzipioen” izenean, *norberaren probetxurako* egiten ditugunak... egiten dugun guztitik asko *konbentzionala* da. (*Isilunea*) Arrazoi duzu (*Isilunea*) Zuk *hezkuntzari* buruz ikasi nahi zenuelako etorri zinela esan zenidan. Nik ez dakit zer irakats ahal izango dizudan hezkuntzaz. Baina badakit hezkuntzari buruz *pentsatzen* dudana esan ahal izango dizudala, eta gero *zeuk* atera kontuak. Eta ez daukazu nirekin borrokan aritu beharrik. *Ez naiz ni* gaia. (*Isilunea*) Eta *oker* nabilenean... Agian ez da zure lana ni “bideratzea”. Nik ez zaitut *zu* “bideratu” nahi. *Pentsatzen* dudana zuri esatea da nire lana, konbentzionala bada ere, eta oker banaiz ere. Eta gero

modu hobeagorik erakusten badidazu, bete betean onartuko dizut. Baina, “eguraldi ederra egiten du” esaten dugunean bezala. Ezingo dugu aurrera egin gizakiak garela onartu arte. (*Isilunea*) Eta hala eta guztiz ere zailtasunak izango ditugu. *Izan izango* ditugu... hori ere ondo dago. (*Isilunea*) Beno...

CAROL: ... itxoin pi...

JOHN: Bai. Entzun egin nahi dut.

CAROL: ... ba...

JOHN: Bai. Esaidazu benetan.

CAROL: Nire jarrera...

JOHN: Entzun egin nahi dut. Zeure hitzetan. Nahi duzuna. Sentitzen duzuna.

CAROL: ... ni...

JOHN: ... bai...

CAROL: Nire taldea...

JOHN: Zure “Taldea”...? (*Isilunea*)

CAROL: ... taldekoak... beraiekin hitzegin...

JOHN: Hori ez da lotsatzekoa. Jende guztiak behar ditu aholkulariak. Jende guztiak agertu behar du norberaren iritzia, ikuspegi desberdinetatik aztertzeko. Ez dago gaizki. Funtsezkoa da. Ondo. Baina: Zu eta biok... (*Telefonoak jotzen du*) Zu eta biok...

(*Zalantza egiten du momentu batez, eta gero hartu egiten du*) (*Telefonoz:*)

Bai, orain ezin dut hitzegin. (*Isilunea*) Esan, um... ez, bazekinat. (*Isilunea*) Bazekinat. Esaion nik... deituko al dinat nik gero...? Orduan esaion nire ustez ondo aterako dela. (*Isilunea*) Esaion... hago, nik... deituko al dinat nik geroago...? Beno... ez, ez, ez, *erosi* egingo dinagu etxea... gu... ez, ez, e... ez, ez du... ez dun seinalea itzultzeko *kontua*... ez... ez dun seinalearen *kontua*... deituko al dion Jerryri? Txiki, txikitxo, deituko al dion Jerryri? Esaion, ez... esaion beraiek, beno, seinaleari eustekotan direla, ze, nakontratua... tratu guztia aurrera *aterako dela*... bai, bazekit... ba... mesedez. *Fidatu* hadi nitaz. Ze... beno, demanda aztertzen ari gaitun. Bai. *Oraintxe* bertan. Horregatik ari naun... bai, ez, ez, benetan, orain ezin dinat *hitz egin*. Deitu Jerryri eta... ez, orain ezin dinat hitz egin. On... ondo. A... agur. (*Eskegi egiten du*) (*Isilunea*) Barkatu moztu egin dizudalako.

CAROL: Ez...

JOHN: Zertaz ari ginen?

CAROL: Demandari buruz hitz egiteko ados jarri beharko genukeela esan duzu.

JOHN: A, bai.

CAROL: Baina horretaz hitz egiten *ari gara*.

JOHN: Bai, hori ere halaxe da, bai. Ikusten? Hau da hezkuntzaren *funtsa*.

CAROL: Ez, ez, Katedra Tribunalaren Audientzian hitz egingo dugula esan nahi dut. (*Isilunea*)

JOHN: Bai, baina horretaz *oraintxe* hitz egin dezakegula esaten ari natzaizu ni.

CAROL: Ez. Nire ustez prozedurari...

JOHN: ... itxoin piska...

- CAROL: ... prozedura “konbentzionala”ri. Zuk esan bezala. (*Jeiki egiten da*) Eta arrazoi daukazu, barkatu “kortesi gabea” izan banaiz. Arrazoi duzu.
- JOHN: Itxoin, itxoin...
- CAROL: Joan egin beharra daukat, benetan.
- JOHN: Bai, konforme, baina interesatu egiten zait estatusa. Konforme. Mundu guztiari. Baina nik esaten dudana da *Tribunalak*...
- CAROL: Irakasle jauna, arrazoi duzu. Baina ez setatu nirekin. Gure diferentziak aztertuko dituzte eta...
- JOHN: Tontokeri bat egingo duzu... begira, begira, begira, tonto...
- CAROL: Ez nuen hona etorri behar. Beraiek esan...
- JOHN: Zaude. Ez, Ez. Hemen *arauak* dauzkagu eta ez dago horrela... begira, zu *ohartzeko* ahaleginetan ari naiz...
- CAROL: Inork ez dizu *eskatu*... *ni* ohartzeko ahaleginetan? Egidazu mesede, ni...
- JOHN: Mesede egiten *ari nattaizu*. *Argi eta garbi* hitz egiten ari nattaizu. *Oraintxe* konpon dezakegu arazo hau. Zu esertzea eta...
- CAROL: Barkatuko didazu baina... (*Kanpora ateratzen hasten da*)
- JOHN: Eseri, badirudi badauzkagula halako... itxaron piska batetan. Itxaron piska batetan... egidazu mesede... (*ez du irteten uzten*)
- CAROL: Utzidazu alde egiten.
- JOHN: Ez zaitut hemen *gelditzera behartu* nahi, zurekin *hitzegin* beharra daukat.
- CAROL: UTZI. UTZI. INORK LAGUNDUKO AL NAU? INORK LAGUNDUKO AL NAU, MESEDEZ...? ARREN, UTZIDAZU ALDE EGITEN...

(Oihala goratzen denean, Carol eta John eserita daude)

JOHN: Hona etortzeko eskatu dizut... (*Isilunea*) ... hona dei egin dizut...

CAROL: Oso harritu naiz zure deiarekin.

JOHN: ... *gogoz kontra*...

CAROL: Oso harritu naiz.

JOHN: ... *gogoz kontra*... bai. Seguru.

CAROL: ... Joatea nahi baduzu, joan egingo naiz. Oraintxe joango naiz... (*Altxa egiten da*)

JOHN: *Behar bezala* hasiko gara, ados? Nik uste...

CAROL: Horixe nahi nuen nik. Horregatik etorri naiz; baina, orain...

JOHN: ... Nik uste...

CAROL: Orain beharbada ni joatea nahi izango duzu...

JOHN: Ez dut zu joaterik nahi. Nik eskatu dizut etortzeko...

CAROL: Ez nengoen etortzera beharturik...

JOHN: Ez (*Isilunea*) Eskerrik asko.

CAROL: Ez horregatik. (*Isilunea*) (*Eseri egiten da*)

JOHN: *Etekinen* bat aterako duzula hemendik, iruditzen bazait ere, aipat...

CAROL: Ni etorri...

JOHN: Entzungo bazenit, bukatu arte entzungo bazenit...

CAROL: Ni etorri naiz... Auzitegiko legegizonek ez etortzeko esan didate.

JOHN: ... "Auzitegiko" legegizonek...?

CAROL: Txundituta geratu naiz zure deiarekin.

JOHN: ... zaude...

CAROL: Bai. Baina *ez naiz* etorri zer "etekin" aterako dudan entzutera.

JOHN: "Auzitegiko" legegizonek esan duzu...

CAROL: ... ez, ez, hobe izango dut alde egitea... (*Altxa egiten da*)

JOHN: Itxaron.

CAROL: Ez. Ez nuen etorri be...

JOHN: ... itxaron. Itxaron. Itxaron piska bat.

CAROL: Bai? Zer nahi duzu? (*Isilunea*) Zer da nahi duzuna?

JOHN: Zu hemen geratzea nahi dut, mesedez.

CAROL: Ni hemen geratzea nahi duzu.

JOHN: Bai.

CAROL: Hara!

JOHN: Bai. (*Isilunea*) Bai. Nik bukatu arte... Entzung... (*Isilunea*) Mesedez. Entzungo bazenit, eskertu egingo nizuke. (*Isilunea*) (*Carol eseri egiten da*) Milesker. (*Isilunea*)

CAROL: Zer da esan nahi didazuna?

JOHN: Ongi. Ezin dut... (*Isilunea*) Ezin dut bestela etsi eta desenkusak eman behar dizkizudala iruditzen zait. (*Isilunea*) (*Eskuetan dauzkan paperetatik*) Irakurri ditut... (*Isilunea*) Behin eta berriz irakurri ditut akusazio hauek.

CAROL: Zer "akusazio"?

JOHN: Ba, Katedra Tribunalaren... zer beste akusazio, ba?

CAROL: Katedra Tribunalala...?

JOHN: Bai.

CAROL: Barkatu, baina horiek ez dira akusazioak. *Frogatuak* izan dira. Egintzak dira.

JOHN: ... Ni...

CAROL: Ez. Horiek ez dira "akusazioak".

JOHN: ... horiek?

CAROL: ... Tribunalak (*Telefonoa jotzen hasten da*) Tribunalak erabaki...

JOHN: ... konforme...

CAROL: ... du horiek ez direla akusazioak. Katedra Tribunalak.

JOHN: KONFORME. KONFORME. KONFORME. (*Telefonoa hartzen du*) Bai? Orain ezin dut hitzegin. Bai. Ez. Non egongo naiz, ba? Esaiozu... orain ezin dut berarekin hitz egin... seguru nago hala dela, baina ni ondo... badakit... Ez, ez daukat astirik... esaiozu... esaiozu... Jerryri esaiozu *primeran* nagoela eta berehala deituko diodala... (*Isilunea*) Nire emazteak ere bai?... bai. Bai, seguru. Bai, milesker. Bai, nik ere deituko diodala. Orain ezin dut hitz egin. (*Eskegi egiten du*) (*Isilunea*) Konforme. Ondo egin duzu etortzearekin. Milesker. Aztertu dut, luze aztertu dut rekisitoria.

CAROL: Hitz hori explikatuz beharko didazu.

JOHN: *Rekisitoria* bat...

CAROL: Bai.

JOHN: "Akusazio ekintza bat" da.

CAROL: Bale. Ba.

JOHN: Bertan suposatutzat ematen da...

CAROL: Ez, ezin dut hori onartu. Ez daukat hori onartzerik. Hor ez da ezer "suposatu". Dena frogatua dago...

JOHN: Mesedez, itxaron pis...

CAROL: Ezin dut *inola ere* onartu...

JOHN: Uzten badidazu... uzten badidazu, zuri "finkatua" iruditzen zaizuna ez dator bat...

CAROL: Garrantzizkoa ez da niri "iruditzen" zaidana. Ez da nire "sentimendu hutsa", emakumezkoena baizik. Baita gizonezkoena ere. Zure nagusiek "epaitu" egin dute, Ez ahaztu! *Frogak* aurkeztu zaizkie eta *epaitu* egin dute, ulertzen? Testigantzak eta frogak aztertu eta *erabaki* dute *Arduragabea* zarela, *utzia* zarela, *erruduna* zarela, *ez zarela gai*, eta *oker* handian zaudela, eta aipatutako arrazoi guztiak direla eta, erabaki dute *ez* dagokizula katedra. Zuzendu behar zaituztela. Gertatutakoagatik. *Gertatutakoagaitik*. Ez "suposatutakoagaitik", baizik *frogatutakoagatik*. Ulertzen? *Zeure ekintzengatik*.
Hori da Katedra Tribunalak erabaki duena. Horixe da nire abokatuak esan didana. Klasean egin zenuenagatik. *Bulego honetan* egindakoagatik.

JOHN: Kalera botako naute.

CAROL: Egokiena izango litzateke. Ez duzu ulertzen? Haserre al zaude? Zerk *erakarri* zaitu egoera honetara? Zure sexuak, ez. Zure arrazak ere ez. Ezta zure maila sozialak ere. ZEURE EKINTZEK. Eta *haserre* zaude. Hona etortzeko *eskatu* didazu. Zer *nahi* duzu? "Liluratu" egin nahi nauzu. "Konbentzitu" egin nahi nauzu. Atzera egitea nahi duzu. Ba *ez* dut atzera egingo. Zer dela eta...? Nik esan dudana zuzena da... Emaztea eta haur bat daukazula esango didazu. Karrera bat daukazula eta hogeitaz lan egin duzula horretarako. Ba al dakizu zertarako *lan egin* duzun? *Boterea*. *Boterea* lortzeko. Ulertzen? Eta hor eseri, eta *istorioak* kontatzen dizkidazu. Zure *etxeari* buruz, *eskola* pribatu guztiei buruz, *pribilejioari* buruz, eta nolatan daukazun eskubide aitortua. *Eroste*ko, *dirua xahutzeko*, *burla egiteko*, *dei egiteko*. Zure istorio guztiak, zure *erru* ahul txoro guztia, *pribilejioan* oinarritzen da eta jakin ere ez dakizu. Itsututa zaude? Hogeitaz lan egin duzu ni *intsultatzeko* eskubidea lortzeko. Eta horregatik *ordaindua* izateko eskubidea daukazula iruditzen zaizu. Zure Etxea. Zure Emaztea... Zure etxe berrirako jarria duzun zure "seinale" maitea...

JOHN: Ez al daukazu sentimendurik ?

CAROL: Hortxe dago koxka! Ikusten. Ez al daukazu sentimendurik? Zure azken argudioa. Zer da sentimendurik ez duena. *Animalia*. Ez nator bat zurekin, pertsona naizen ala ez kuestionatzen ari zara.

JOHN: Ez daukazu sentimendurik.

CAROL: Nik erantzukizun bat daukat. Nik...

JOHN: ... norekiko...?

CAROL: Norekiko? Instituzio honekiko. *Ikasleekiko*. *Nire taldearekiko*.

JOHN: ... zure "taldearekiko"...

CAROL: Ni ari naiz, bai, ez neure izenean, taldearen izenean baizik; nik sufritu dudana sufritzen dutenen alde ari naiz. Beraien izenean, nahiz eta ni prest egon, zertarako? barkatzeko? ahazteko? zer? Aintzakotzat ez hartzeko zure...

JOHN: ... nire jokabidea?

CAROL: Ez litzateke bidezkoa izango.

JOHN: Niri "barkatzeko" prest izanda ere.

CAROL: Ez litzateke bidezkoa izango.

JOHN: Eta zer suertatuko litzateke?

CAROL: Suertatuko?

JOHN: Bai.

CAROL: “Gertatuko”?

JOHN: Bai.

CAROL: Orduan, *esan bada*. Ia ostia! Zein *kristo* zarela uste duzu? Maila on bat nahi duzu. Mugarik gabeko boterea nahi duzu. Nahi duzun guztia esan eta egiteko. Gustora oso-aztertu, galdetu, flirteatu...

JOHN: Nik sekula ez dut...

CAROL: Barkatu, unetxo bat, e? (*Apunteetatik irakurtzen du*)

12an: “Egun ona izan, laztana”

15ean: “Hara, zein xarmanta *zauden!*...”

Apirilak17an: “Neskak, hona inguratuko bazinate...” Antzeman dizut, antzeman dizut, irakasle jauna. Kurtsoan zehar, hor eseri, hor jarri eta esplotatu egin duzu, zerorren ustez, gurekiko duzun “prerrogatiba paternala”, eta zer da hori bortxaketa hutsa baino. Zin dagit Jainkoaren izenean. Hona etortzeko eskatu didazu, nik ulertzen ez nuen zerbait azalduko zenidala eta, umea banintz bezalaxe. Baina ni zerbait azaltzera etorri natzaizu. Zu ez zara Jainkoa. Zergatik etorri naizen galdetu didazu? Zuri irakastera etorri naiz.

(*Johnen liburua ateratzen du*)

Eta zure liburua? Zuk uste al duzu batere “argirik” piztuko didanik? Zu “*Berritzailea*”. Inkonformista zu? Ez, ez... (*liburuko azpimarrak irakurtzen ditu*) “... *ikerketa* tradizio fin horretatik sortua. *Eszeptizismo* neurtitik...”, eta intelektual diskurtso librean sinesten duzula diozu. ZUK EZ DUZU EZERTAN SINESTEN. EZ DUZU EZERTAN ERE SINESTEN.

JOHN: Pentsakera askatasunean sinesten dut nik.

CAROL: Hara! Zein polita. Ba ote?

JOHN: Bai, hala da.

CAROL: Orduan, zergatik kuestionatzen duzu, momentu batez, sikira, Tribunalak zure katedra gaitzesteko hartu duen erabakia? Zergatik kuestionatzen duzu zure lan suspentsioa? Pentsakera askatasun *deritozun* horretan sinesten duzu. Bai, horixe! Zuk era berezia daukazu pentsakera askatasunean sinesteko *eta* etxe batean, eta, *eta* zure semearenganako prerrogatiba paternalean *eta* katedran. Ba nik esango dizut: zuk *ez* duzu “pentsakera askatasunean” sinesten, zu saritzen zaituen eliteko jerarkia babestu horretan baizik. Eta pailazoarena egiteko aukera ematen dizun horretan. Zure errenta ordaintzen duen sistemari burla egin eta etekin ateratzen diozu. Zu zaude oker. Ni ez nago oker. Zu zaude oker. Gorrotoz betea nagoea uste duzu. Badakit zer pentsatzen duzun nitaz.

JOHN: Eta ez al da egia?

CAROL: Ez. Zuk uste duzu ni... horixe dakidala!... Zuk uste duzu dudako sexualitate bateko gazte izutua naizela, erreprimetua, nahasia, ez dakit, abandonatua, boterea eta mendekua nahi dituen. (*Isilunea*) Ez da hala? (*Isilunea*)

JOHN: Bai, hala da. (*Isilunea*)

CAROL: Eskerrak! Errespetuz tratatu nauzun lehenengo aldia dela uste dut. Egia esan didazulako. (*Isilunea*) Ez naiz hona etorri, sinistuta bazaude ere, zure ezbeharrekin alaitzera. Zer dela eta alaitu nahiko nuke nik? Ez dut etekinik atera zure, zure, zuk diozun bezala, zure “zoritarretik”. Hona etorri naiz, zuk *gonbidatzeko* ohorea egin didazunez, zuri zerbait *esatera*.

(*Isilunea*) Nik uste... nire ustez zu oker zaude. Nire ustez, erabat oker zaude. Gorrotatu egiten al nauzu orain? (*Isilunea*)

JOHN: Bai.

CAROL: Zergatik gorrotatzen nauzu? Oker nagoela uste duzulako? Ez. Zugan *boterea* dudala uste duzulako. Entzuidazu. Entzuidazu, irakasle jauna. (*Isilunea*) Boterea duzu gorroto. Hain sakonetik gorrotatzen duzu ezinezkoa dela libre eztabaidatzeko giro egokia sortzea. Ez da “sorgaitza”. *Sortezina* da. Ezta?

JOHN: Bai.

CAROL: *Ez al da* hala...?

JOHN: Bai. Agian bai.

CAROL: Beno. Hain krudela iruditzen zaizuna selekzio prozesu berbera da, nik, eta nire taldeak, *eguna joan eta eguna etorri*, gure bizitza osoan jasaten duguna. Unibertsitatean sartzeko. Azterketetan, klaseko mailaketan... Zilegi al da? Nik ez daukat esaterik. Baina, zilegi baldin bada, edo areago “zoritarrekoa baina beharrezkoa” bada guretzat, orduan, zuretzat ere hala behar du izan, bai horregatio. (*Isilunea*) “Gazteekiko duzun ardurari” buruz idatzi duzu. Errespetuz trata gaitzazu, horrek *erakutsiko* dizu zure erantzukizuna zein den eta. Hezkuntza zirikatzea besterik ez dela idatzi duzu. (*Isilunea*) Baina guk Fakultate honetara iristeko lan egin dugu. (*Isilunea*) Eta gutako batzuk... (*Isilunea*) aurriritzi asko gainditu behar izan dugu; ekonomikoak, sexualak, ez zenituzke imajinatu ere egingo. Eta zuk eta zure ingurukoek sekula ez sufritzea *espero* dudan pareko umiliazioak jasan ditugu. (*Isilunea*) Hemen onartuak izateko. *Zuk* daukazun segurtasun amets hori berbera lortzeko. Gu geu, gu baikara, hori, edozein momentutan galtzeko arriskuan gaudenok; edozeinek hala nahi izan...

JOHN: Zeinek?

CAROL: Administrazioak. Irakasleek. *Zeuk*. Esate baterako, nota txar batek, unibertsitatean sartzea galerazten baitigu; edota jo dezagun, gure partetik jaso duzuela, erantzun kapritxosoa edo irudimentsu bat, batere graziarik egin ez dizuena. Orain *badakizu*, ikusten? Badakizu zer den botere horren menpe egotea. (*Isilunea*)

JOHN: Ez dut ulertzen. (*Isilunea*)

CAROL: Nire karguak ez dira hutsalak. Berehalaxe onartu zituztela da horren seinale, nik uste. Halako kutsu sexista zeukan kontatutako *txiste* bat. Erabiltzen duzun hizkera, hitzeko edo benetako zirri bat, bai, bai, badakit, zuretzat ez du garrantzirik. Ulertzen dut. Baina ez nator bat zurekin. Norbaiten bizkarrean eskua jartzea.

JOHN: Eduki sexualik gabea zen.

CAROL: Nik ezetz diot. EZETZ DIOT. Noiz ikusiko duzu? Noiz ulertuko duzu? EZ DAGOKIZU ZURI HORI ESATEA.

JOHN: Zure argudioa onartzen dut eta esan duzun horretan egi puska galanta ikusten dut.

CAROL: ... hala iruditzen zaizu...?

JOHN: ... bai; eta honek ez du esan nahi errudun naizen gauza horietan aldatu ezin naizenik, baina...

CAROL: Esplotazio sexualaren kargutik erabat libre zaudela derizkiozu?

JOHN: Beno, ni... ni... ni... Badakizu, ni... lehen esan dut, nik... *ikasteko* zaharregia ez naizela uste dut, eta ikasi egin *dezaket*, nik...

CAROL: Esplotazio sexualaren kargutik erabat libre zau...

JOHN: ... zaude, zaude, zaude... Bale, itzul gaitezen lehengo...

CAROL: ASTAKIRTENA! Nor uste duzu naizela ni? Hona etorri eta *irribarre* batekin dena konpondu nahi izateko. Lelo gizarajo motza! “Mendekua” nahi dudala uste duzu. Ez dut mendekurik nahi. ULERMENA NAHI DUT.

JOHN: ... benetan?

CAROL: Bai. (*Isilunea*)

JOHN: Eta zertarako. Nireak egin du.

CAROL: Zer? Zerk egin du?

JOHN: Nire lanak .

CAROL: A. Zure lana. Horretaz hitz egin nahi zenuen. (*Isilunea*) (*Gelatik irtetetzen hasten da. Pauso batzuk eman eta beragana itzultzen da*) Jo dezagun... (*Isilunea*) ... taldeak kargua erretiratuko balu, zer? (*Isilunea*)

JOHN: Zer?

CAROL: Adu duzuna. (*Isilunea*)

JOHN: Eta zer dela eta?

CAROL: Ba, adiskidetasuneko ekintza gisa.

JOHN: Adiskidetasuneko ekintza bat.

CAROL: Bai. (*Isilunea*)

JOHN: Zerbaiten truke.

CAROL: Bai. Baina nik ez nuke “truke” esango, ez da “trukean”. Zer etekin ateratzen dugu hortik?

JOHN: “Etekinik”?

CAROL: Bai.

JOHN: (*Isilunea*) Bat ez. (*Isilunea*)

CAROL: Halaxe da. Ez dugu etekinik aterako. (*Isilunea*) Konturatzen al zara?

JOHN: Bai.

CAROL: Hitz txiki bat da hori, irakasle jauna. “Bai”. “Konturatzen naiz”. Baina konturatu egingo zara.

JOHN: Eta Tribunalarekin hitz egingo al zenuke...?

CAROL: Tribunalarekin?

JOHN: Bai.

CAROL: Beno. Jakina. Horixe da buruan daukazuna. Baliteke.

JOHN: “Baldin eta” zer?

CAROL: “Demagun” hobe. Lagunartekoagoa iruditzen zait.

JOHN: “DEMAGUN” ZER?

CAROL: Sinestuidazu, zure amorrua ulertzen dut. Ez da nik sentitzen ez dudala ere. Baina ez dut uste merezi dudarik, beraz ez dizut gaizki hartuko... Ados! Zerrenda bat daukat.

JOHN: ... zerrenda bat.

CAROL: Liburu zerrenda bat, guk...

JOHN: ... liburu zerrenda bat...?

CAROL: Hori da. Gure ustez kuestionatzeko modukoak direnak.

JOHN: Zer?

CAROL: Hain bitxia al da hori...?

JOHN: Sinestezina...

CAROL: Ez da beharrezkoa zuk sinestea.

JOHN: To!... Irakaskutz askatasuna...

CAROL: Norbaitek aukeratzen ditu liburuak. Zuk aukera baditzaitez, besteok ere bai. Zer zara zu, Jainkoa?

JOHN: ... ez, ez, tipo "arriskutsu" bat naiz, besterik gabe...

CAROL: Zuk zure gai zerrenda daukazu, guk gure gai zerrenda daukagu. Ez zaizkit zure sentimenduak edota zure motibazioak interesatzen, zure ekintzak baizik. Nik Katedra Tribunalarekin hitz egitea nahi baduzu, hona hemen nire zerrenda. Pertsona libre zara, zeuk erabaki. (*Isilunea*)

JOHN: Emaidazu zerrenda. (*Carolek hala egiten du. Johnek irakurri egiten du*)

CAROL: Hor aurkituko duzu... bertan ikusiko duzu...

JOHN: Irakurtzeko gauza naiz. Eskerrik asko.

CAROL: Baditugu *testu* batzuk berrikusi...

JOHN: Argi da.

CAROL: Gu ere prest gaude aldaket...

JOHN: Aha. Utzidazu, ba, begiratzen... (*Irakurri egiten du*)

CAROL: Nire ustez...

JOHN: HARA. Zure eskaria irakurtzen ari naiz, konforme! (*Irakurri egiten du*) (*Isilunea*) Nire liburua debekatu egin nahi al duzue?

CAROL: Guk ez dugu...

JOHN: (*Zerrendatik*) Hementxe esaten du...

CAROL: ... unibertsitateko exenplu adierazgarri gisa kendu egin nahi dugu.

JOHN: Hanka hemendik.

CAROL: Arazo pertsonalak alde batera utziz gero...

JOHN: Ipurtzulotik hartzera bulego honetatik.

CAROL: Ez, eztabaidatu dezakegula uste dut

JOHN: Zuk uste duzu?

CAROL: Hala uste dut eta *hala* egingo dugu. Gure laguntza nahi ba duzu. Hau da baldintza baka...

JOHN: ... nire *liburua* debekatzea...?

CAROL: ... halaxe da...

JOHN: ... hau... hau *unibertsitatea* da... gu...

CAROL: ... eta agiri bat idatzi dugu... beharrezkoa dugu zure sina... (*Paper bat luzatzen dio*)

JOHN: Ez, ez. Ezta pentsatu ere. Barkatu. Ez dakit zertan ari nintzen pentsatzen. Zerbait esan behar dizut. Irakaslea naiz. Irakaslea naiz. E? Nire *izena* da atean jarrita dagoena, eta nik irakasten dut eta hori da egiten dudana. Liburu bat daukat; nik idatzia. Eta egunen batetan semeak *liburu hau irakurri egingo du*. Eta erantzunkizun bat dau... Ez, barkatu, *erantzunkizun* bat daukat... nire *burua*, nire *semea* eta nire *lanbidearekiko*... ez naiz *etxera* joan bi egunetan, ba al dakizu? Guzti honetaz pentsatzeagatik.

CAROL: Ez al zara...?

JOHN: Ez naiz joan, ez!. Jakin nahi baduzu. Hotel batetan egon naiz. *Pentsatzen*. (*Telefonia jotzen hasten da*) *Pentsatzen*...

CAROL: Ez al zara *etxera* joan?

JOHN: *Pentsatzen*, hara!...

CAROL: O!

JOHN: Eta, eta, zorretan nago zurekin, orain jabetu naiz. (*Isilunea*) *Arriskutsua* zara, *oker* zaude eta nire *dagokidana*... zuri ezetz esatea da. Hori da nire *dagokidana*. Arrazoi guztia duzu. Nire *liburua* debekatu nahi duzu? *Zoaz infernura* eta nahi dutena egin dezatela nirekin.

CAROL: ... ez zara bi egunetan *etxera* joan ...

JOHN: Lehen ere esan dizut hori.

CAROL: ... ba hobe duzu telefonia hartzea. (*Isilunea*) Telefonia hartu beharko zenuke, nik uste.

(*JOHNek telefonia hartzen du*)

JOHN: (*telefonoz:*) Bai? Orain ezin dut hitzegi (*Isilunea*) Bai. Ba... ni, ni, kanpora joan beharra neukian. Konfor... kezkatuta dau... kezkatu egin al dituk... Ez. Orain ondo negok, Jerry. Ondo ne... *nahasi samartuta* ibili nauk baina orain hemen *eserita* negok eta... Bazekiat nola konpondu. Primeran negok. Primeran, ez nitaz kezkatu. Aztoratuta ibili nauk. Baina ez zekiat ez ote den bedeinkazio bat izan. Horregatik galdu dudala nire lana? Ederki. Orduan lanak ez zian penarik merezi. Esaiok *Grace-ri* *etxera* joango naizela eta dena ondo zeg... (*Isilunea*) Zer? (*Isilunea*) Zer? (*Isilunea*) Zer ari haiz esaten? ZER? Jerry... Jerry. Beraiek... Nork, nork, zer egin zezaketek? (*Isilunea*) EZ. (*Isilunea*) EZ. Ezin diate horre... Zer ari haiz esaten? (*Isilunea*) Nola, ordea... (*Isilunea*) Bera, hemen zegok. *Hementxe* zegok nirekin. Akusat... Jerry. Ez diat uler... (*Isilunea*) (*Eskegi egiten du*) (*CAROLi:*) Zer esan nahi du honek?

CAROL: Bazenekiela uste nuen.

JOHN: Zer. (*Isilunea*) Zer esan nahi du honek? (*Isilunea*)

CAROL: Ni bortxatzen saiatu zinen. (*Isilunea*) Legearen arabera. (*Isilunea*)

JOHN: Zer ...?

CAROL: Ni bortxatzen saiatu zinen. Bulego honetatik irtetera nindoala, “estutu” egin ninduzun. Zure gorputza nirearen kontra “estutu” zenuen.

JOHN: ... nik...

CAROL: Nire taldeak zure abokatuari esan dio kargu kriminalak jar ditzakegula.

JOHN: ... ez...

CAROL: ... legearen arabera. Hala esan didate. Erasoa izan zen.

JOHN: ... ez...

CAROL: Bai. Bortxatze-ahalegina. Hori da. *(Isilunea)*

JOHN: Hobe izango duzu ospa egitea.

CAROL: Jakina. Bazenekiela uste nuen.

JOHN: Abokatuarekin hitz egin behar dut.

CAROL: Bai. Hobe izango duzu, bai.

(Telefonoak jotzen du berriz.) (Isilunea)

JOHN: *(Telefonoa hartzen du. Telefonoz:)* Bai? Orain ezin dut hitzegin... Bai, oraintxe deitzea egin din. Ez... bai, orain ezin dinat hitz egin, txiki. *(CAROLI:)* Alde.

CAROL: Zure emaztea?

JOHN: ... ez zaizu inporta nor den. Utikan. *(Telefonoz:)* Ez, ez, ondo joango dun guztia. Ez, orain ezin dinat hitz egin, txiki. *(CAROLI:)* Alde hemendik.

CAROL: Banoa.

JOHN: Ederki.

CAROL: *(irteeran)* Ez deitu “txiki” zure emazteari.

JOHN: Zer?

CAROL: Ez deitzeko “txiki” zure emazteari. Aditu duzu esan dudana.

(CAROL gelatik irtetera doa. JOHNek heldu eta joka hasten zaio.)

JOHN: Puta zahar zikin halakoa. Zure zuzentasun politikoarekin hona etorri eta nire bizitza izorra dezakezula uste al duzu?

(Lurrera botatzen du)

Eman dizudan tratua eman eta gero...? Zuk zera behar zenuke... zu bortxatu...? Niri adarra jotzen...?

(Aulki bat hartu, bere burutik gora jaso eta Caroli hurbiltzen zaio)

Ez zintuzket ukituko, ezta San Pedrotarren arraun batez ere. *Urdanga* nazkante hori...

(Carolek lurrean bere burua babesten du. Isilunea. Johnek begiratu egiten dio. Aulkia beheratzen du. Bere idazmahaira joan eta paperak antolatzen ditu. Isilunea. Caroli begiratzen dio.)

Beno...

(Isilunea. Carolek begiratu egiten dio)

35

CAROL: Bai. Ongi da.

(Beste alde batera begiratzen du eta burua makurtzen du. Berekiko:)

Ongi da.